



BARREN

TOKIKI



Robotekin jolasean ikasiz

14. EDIZIOA IMH SARIAK

Heziketa Zikloen Diploma eta
Sari banaketa ekitaldia
Ekainak 16 - 18:00etan, IMHn



ENPRESA B A B E S L E A K



ENPRESA K O L A B O R A T Z A I L E A K

ALCORTA FORGING GROUP - AGME - BRONYMEC - DPH - ECENARRO - ENGRANAJES GRINDEL - ETXE-TAR - FAGOR AUTOMATION
ENGRANAJES GRINDEL - GURUTZPE - JUARISTI - HAIZELUR - IBARMIA - ILS - KENCI KENNAMETAL - LAIP - PAMPO - RICOH - SAMSIK IBERIA

PROPOSATU HAUTAGAIK AURTENGO IKASLE OHI AIPAGARRIA AUKERATZEKO > www.imh.eus

SARIAK: IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / DUALEKO IKASLE AIPAGARRIA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA

HEZIKETA ZIKLOAK

Aurrematrikula:
Ekainak 6-17



INGENIARITZA DUALAREN
AZKEN INFO.SAIOA:
EKAINAK 13 17:00ETAN



www.imh.eus - imh@imh.eus - Tel.943744132 - Elgoibar

“Euskararen isobarak”

hitzaldia

Pako Aristi

“Modu basatian inposatu dira bi hizkuntza Euskal Herrian, espainola eta frantsesa. Azpiratu dute euskara piramide sozialaren barreraino, sinetsaraziz gureak direla espainola eta frantsesa ere. Baina ez ziren, eta ez dira. Propaganda erabili dute hori modu naturalean gertatu dela sinestarazteko munduari, baina ez da hala izan. Hizkuntza ez baita galtzen dakitenek hitz egiten ez dutelako, dakitenei hitz egitea debekatu zaielako baizik”.

Ekainak 8, asteazkena
19:00

Kultur Etxeko hitzaldi-gela

Antolatzailea,



Laguntzaileak,





ANDER IZAGIRRE



“Denok dugu naturaren inguruan zer ikasi”

Aupa Inma! Elkarren arteko azken beleak zozaari atalean, uraren nazioarteko eguna izan zela eta, horri buruz jardun genuen. Oraintsu dibertsitate biologikoaren nazioarteko eguna pasa dugu eta horren inguruan ere kontu asko aipatu eta eztabaidatu ditzakegu.

Nire kasuan, egun horren aitzakian, Aranzadi Zientzia elkarteak antolatutako ikastaro bateko *irakasle* lanetan jardun nuen, gure inguruan bizi diren narrasti eta anfibioak bereizten irakasten. Hurrengo egunean berriz, Arditurriko parketxeak antolatuta, Aiako Harriko anfibio eta narrastiak ezagutzeko irteeran izan nintzen, gidari lanak egiten. Aurrenekoan publiko gaztea zen nagusi; bigarrenean, berriz, umeak eta helduak. Ume, nerabe, gazte, heldu, nagusi... denok dugu naturaren inguruan zer ikasi. Atal honetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu ingurumen hezkuntzaren garrantzia,

eta ni behintzat, saiatzen naiz nire *espezialitatean* hezten. Hain zuzen ere, narrasti eta anfibioen mundu ezezagun eta gaizki ikusiaren errealitatea erakusten.

Aste barruan berriz, Hernaniko Ziraba proiektuaren hitzaldi batean izan nintzen. Ziraba, anfibio eta narrastiak ardatz harturik, diziplina desberdinak lantzen dituen proiektua da. Ikerketa, kontserbazioa, euskara, hezkuntza, auzolana... Txalotzeko proiektua. Eta txalotzekoa baita, Ereñozu auzoko bizilagunen eta orokorrean umeen inplikazioa.

Esango nuke, Elgoibar ere badela umeak eta gurasoak inplikatzeko diren herria. Maila txikiagoan izan behar badu ere, zergatik ez dugu hemen ere Ziraba proiektuaren antzerako bat bultzatzen? Sargoate iturri inguruan badago anfibioentzako putzu egoki bat sortzeko leku aproposa. Imaginatu ezin genezakeen jokoa eman dezake putzu soil batek, eta hasiera polit bat izan daitekelakoan nago.



INMA MUGERTZA

“Eman ditzagun pausoak ura-anfibioak-herritarrak hirukotearen alde”

Kaixo zuri ere, Ander! Bai, arrazoi duzu, maiatzaren 22a izan zen egun seinalatua. Biodibertsitateak –Lurreko bizitzaren aniztasunak– bizitzeko egoki eta eder bihurtzen du gure planeta. Gutako askok plazerrerako, inspiraziorako eta aisiarako iturritzat jotzen dugu natura. Gainera, horren beharra dugu elikagaiak, energia, lehengaiak, airea eta ura lortzeko, hau da, bizitza ezagutzen dugun bezala posible izateko.

Natura ordezkazina da, eta egun guztiak dira biodibertsitatearen nazioarteko eguna, seinalatua maiatzaren 22a bada ere. Hala ere, planetako bizitzaren aniztasuna ezagutu eta balioztatzeko, ezagutza hori modu eroso eta erakargarri batean hedatu dezakeen jendea behar da, eta eskertzekoa da egiten ari zareten lana. Ez du ezertarako balio gai bati buruz asko jakiteak, baldin eta ezagutza hori barreiatzen ez bada. Edozein modutan, argi

dago gai batzuk esker onekoagoak direla, hau da, jendeak ez dituela berdin hartzen tximeletak edo anfibioak eta narrastiak, ezta Ander? Hortxe ahalegin handiagoa egin beharra daukazu, bai.

Lurreko bizitzaren aniztasunaren nazioarteko egunaz gain, 22an LIFE programaren 20. urteurrena ere ospatu zen. Proiektu horren bidez, Urdaibain, Txingudin eta Lean dabilzian hegaztien baldintzak hobetu nahi dira eta landare-espezie inbadiitzaileak bestelako estuario eta itsasertzeko eremuetara zabalitzea saihestu nahi da. Ikusten denez, ekintza ugari martxan daude baina, diotzun moduan, maila txikiagoan ere egin daitezke gauzak eta Sargoatek aukera ezin hobea ematen du partaidetza bultzatu, anfibioentzat esparru eroso bat sortu eta herritarron ezjakintasuna sendatzeko. Eman ditzagun pausoak ura-anfibioak-herritarrak hirukotearen alde!

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Gizarte eredua

Erreinu (edo errepublika) propioan hezten ditugu haurrak: geure etxean, familia nuklearren arauen arabera. Auzora etorri berri dena "kanpoko da", gurasoen artean hezteko modu egokienarekiko lehia dago, geureaz arduratzen gara inguruan laguntzarik eskatu gabe zorrik ez izateko. Geure etxeetako ateen geroz eta zerraila gehiago eta gogorragoak dituzte, autok segurtasun sistema aurreratuak, gupil gainean goazenean segurtasun ekipamendua jantzi behar dugu... Geure babes ingurune (geure etxea,

geure autoa) horretatik kanporakoa arrisurtsu gisa hautematen da.

Eredu honetan hazi diren haurrak eta gazteak, mundura zabalik klik batean, baina geure babeslekutik. Nola ikasiko dute elkarbizitzen? Nola ezagutuko dute kultura aniztasuna? Nolatan harritzen gara gazteen jarrerekin? Ezberdina dena baztertzen duen haurra zeren isla da? Denon ahotan dabilen *bullynga* (ahulago sumatzen dugunarekiko jazarpena) nola sortzen da? Nolatan daude honenbeste sexu eraso 20 urte inguruko gazteen aldetik?

Eskuzabaltasuna, ezberdinarekiko kuriositatea eta ezagutzeko gogoia, iritzi ezberdinekiko errespetua, aniztasunaren aberasgarritasuna eta abar. Sustatzen ditugu?

Kontuan hartu inguruko txikitxoak, auzoko zein sendiko, guri begira bizi direla, eredu garelara. Zein gizarte eredu nahi dugu eurentzat?

Hartu momentu bat pentsatzeko: zeure balioen arabeko bizimodua daramazu?

Gaurkoan galderak sortzeko gogoarekin nator. Historiaurrean naturak ezartzen zituen arauak eta beharrezkoa genuen komunitatea, auzolana, bizirauteko.

Geure ekosistema sortu dugu besteekiko dependentzia hori desagertariz eta naturaren arauak gaindituz; edozein klimatarako prestatzen gaituen arropa, tenperatura eroso bat mantendu ahal duten etxeak, munduko edozein izkinatako janariak urte osoan zehar eskura...

"Hartu momentu bat pentsatzeko: zeure balioen arabeko bizimodua daramazu?"



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ERRAUSKETARIK EZ

Hondakinak etxean gaika sailkatu eta egoki bilduta, errefus gutxi sortuko dugu eta ez da erraustu beharrik izango. Gipuzkoan agintari berriek, ordea, bide hori alde batera utzi eta mila milioi eurotik gora gastatu nahi dituzte erraustegia eraikitzeko. Erabaki oso kaltegarria gure osasun eta ondasunarentzat.

Gipuzkoa ekonomikoki ito egingo du egitasmoak. Erraz esaten da mila milioi euro, baina kostata ordaindu. Garesti. Gipuzkoarrok ordainduko dugu oso osorik, tasa eta zergen bidez, ondorengo hamar kadetan. Eta bada diru hori zertan erabili. Arnasa behar dugu, are gehiago, krisi garaian.

Erraustegiak, gainera, kutsatu egiten du. Osasunarentzako oso kaltegarria den ke eta gai toxikoak isurtzen ditu. Ondorioz, erraustegiaren ondoan bizi direnek minbizia garatzeko arrisku handiagoa izango dute. Hainbat mediku txostenek egiaztatu dute hori. Horregatik diogu, burua duenak ez duela etxe ondoan erraustegirik nahi. Eta bihotza duenak, inon ere ez. Osasunaren alde eta erraus-

ketaren aurka gaudenak asko bagara ere, lo baldin bagaude azpian harrapatuko gaitu Gipuzkoako Aldundiko agintarien asmo zitalak. Beraz, mugitu zaitez zu ere.

Azkar eta isilean ari dira egitasmoa lantzen, eta konturatu orduko martxan jarriko dute.

Atez ateko bilketarekin ehuneko 80 birziklatzen dugu herri askotan eta eredu-garriak gara European. Hori da bidea, Zero Zabor, alegia. Etxean egindako aha- legin txikiak onura handia dakarkio denon osasun eta ondasunari. Zabaldu dezagun gure eredu, ez dezatela gure etorkizuna hipotekatu eta gure ondorengoena arriskuan jarri.

Jon Altuna

► ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

Mila esker, Iban! Mila esker, Elgoibar! Mila esker inguruko herriei! Iban 2-dean elkartasun erronkak izan duen erantzuna ezin hobea izan da. Gazte, heldu eta haur asko gerturatu zarete King Kong-eko gure salmenta puntura eta pertsona askok erosi dituzue km-ak internet bidez. Zuen animo eta esker hitzak oso

garrantzitsuak izan dira guretzako. Geure herriaren babes sentitu dugu hasieratik bukaeraraino. Horregatik mila esker bihotz bihotzez!

Eta zuri, Iban, zer esango dizugu ba? Zutaz oso harro gaudela; ohartu gabe, herri oso bat dantzan ipini duzula. Beste behin, Elgoibarko herriaren elkartasuna zein handia den ikusteko aukera eman diguzula: batzuk km-ak erosten, beste batzuk m-ak, beste batzuk berriz zurekin mendian gora eta behera ibiltzen, beste batzuk trikitia hartu eta mendian zu animatuz, beste batzuk plazara zu txalotzera gerturatuz, Udala baimenak ematen, elkarte batzuk haien materiala geuri utziz... Zenbat emozio, Iban!

Zuk eta Elgoibarko herriak, pertsona askoren sufrimendu jasan ezina pixka bat arintzea lortu duzuelako. Laguntza behar dutenei laguntzea baino gauza ederragorik eta satisfazio handiagorik ez dagoelako; eta zuk horixe bera sentitzeko aukera hau eman diguzulako. Hunkigarria izan da benetan! Mila esker txapeldun!

2-dean taldea

I. URTEURRENA

Antonio Ansola Gurruchaga eta Antxoni Etxaniz Elorza



Antonio Ansola 2015eko ekainaren 16an hil zen, 90 urte zituela eta Antxoni Etxaniz 2015eko maiatzaren 17an hil zen, 76 urterekin.

Euren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 5ean, goizeko 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztu aurretik eskerrak.

Jendeak erakutsitako elkartasuna eskertu dute Sebas Etxanizen lagunek eta senideek



Sebas Etxaniz presoaren senideek eta gertuko lagunek eskerrak eman dizkiete maiatzaren 20an bere askatasuna eskatzeko argazkira hurbildu ziren guztiei. "Pentsaera bateko zein besteko pertsona askok elkartasuna erakutsi digute, eta hori pozik egoteko modukoa da", adierazi dute. Etxanizek 72 urte ditu, eta 14 urte daramatza preso. Legediaren hainbat atalek diote 70 urtetik gorakoek kalean egon beharko luketela. Etxanizen gertukoek adierazi dute preso elgoibartarra etxera ekarri ahal izateko ahal duten guztia egingo dutela.

AFM elkarteak DanobatGroup taldea saritu du biurteko azokan




AFM elkarteak antolatutako Berrikuntzaren 12. sarietako bat Elgoibarko DanobatGroup taldeari eman zioten eguaztenean, makina-erremintaren biurteko azokan. Estatuko hamalau proiektu izan ziren lehian hiru sailetan eta DanobatGroup saritu dute Berrikuntza 4.0 kontzeptuak fabrikazio aurreratuko sistematan txertatzearen sailean, FMT4000 mekanizatze-zentroa proiektuagatik. Elgoibarko Metrologia Sariki ere sarietako hautagaietako bat izan zen.

Bestalde, AFMk sustatuta, Elgoibarren eratu zuten Mekanizazio eta Transformazio Metalmekanikoaren Elkarteak. Mekanizazioan, galdaragintzan eta metala eraldatzen duten enpresak batzeko eta zerbitzua emateko.

Guillermo Hijano, Zientzia Olinpiadetan jaun eta jabe

Guillermo Hijano elgoibartarrak emaitza bikainak lortu ditu Zientzia Olinpiadetan. Lehenik, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateak antolatutako Euskal Zientzia Olinpiadetan bi domina irabazi zituen: urrezkoa Fisikan eta zilarrezkoa kimikan. Euskal Zientzia Olinpiadetan edizio honetan, 31 ikastetxetako 190 ikaslek hartu dute parte. Lortutako emaitzei esker, Espainiako Fisika eta Kimika Olinpiadetan parte hartzeko sailkatzea lortu zuen eta zilarrezkoa lortu zuen bai fisikakoan, bai kimikakoan.



Erronka solidarioan batutako 6.300 euroak Greziako Chios uhartera bideratu dituzte



Guztira, 6.341,60 euro bildu dituzte Iban Fernandezek asteburuan egindako erronka solidarioaren harira. "Iban 2-dean ekimena antolatu dugun guztion partez eskerrak eman nahi genizkieke Elgoibarri eta inguruko herriei. Oso pozik eta hunkituta gaude jaso dugun babesarekin". Dirua Salvamento Maritimo Humanitario elkartera bideratu dute Greziako Chios uharterko "errefuxiatuei beraien samina pixka bat arintzeko". Fernandezek herritarren babesu jaso zuen aurreko asteburuan, hiru itzuli osatuta erronka bertan behera laga zuen arren.

Belaustegi jatetxea, domekan ETB-2n

Reyes Pradosek aurkeztuta, Euskal Herrian aukeratutako lekurik preziatuena era-kusten ditu *De lo bueno lo mejor* saioak. Domekan Elgoibarko Belaustegi baserria erakutsiko dute ETB-2ko saio horretan, 20:10etik aurrera. Sona handiko hotelak, eta bestelako parajeak erakusten dituzte. Jatetxeko atea ez ezik, etxebizitzako atea ere ireki dizkio Josu Mugertzak telebistako saioari.



EROSKI Eibar hipermerkatu berria

Gurekin ospatu!

%25

DOAN*
zure erosketan

Deskontu-baleetan itzuliko dizugu

LARUNBATA

4
EKAINA



EROSKI

zurekin



Ana Martín
Dandakoa profesionala

Etor zaitez!

Bazkideentzat soilik

* Sustapen hau EROSKI Eibar (Oraola hiribidea, 5) hipermerkatuan balagarria da.
* Baloen gehieneko zenbatekoa: 150€ (baleak emateko erosketaren gehieneko zenbatekoa: 600€).
* Kontsultatu baldintzak zure denda.

Harrera familiak, babesik gabeko umeentzako aterpe



Arg.: Jonh Morgan CC-BY

Harrerako haurren elkarteak, Beroak, Mendaron egingo du aurtengo Elkarbizitza Jardunaldia. Domeka honetan Gipuzkoako harrera familiak bertaratuko dira, haien bizipenak partekatuz eta eguneroko bizitzan sortzen zaizkien kezkak argitzen saiatuz. Une honetan, Gipuzkoan 361 haur eta gazte daude harrera egoeran. Haien jatorrizko familiekin bizi ezin diren haurrak dira, beste familia batekin bizi direnak. Idurre Arakistainek, familian harrerako bi ume dituen mendaroarrak, bere esperientzia kontatu digu.

- OIER NARBAIZA -

Gipuzkoako harrera familien elkarteak da Beroa. Urtero Elkarbizitza Jardunaldi bat antolatzen du lurraldeko herri batean, eta aurten Mendaro aukeratu du 11. jardunaldia egiteko. Harrera familiekin haien bizipenak partekatuko dituzte jardunaldi horretan, eta sortutako kezkak argitzen saiatuko dira. Familia biologikoaren presentziak eragiten dituen belduak jorratuko dituzte jardunaldietan, eta beste zenbait gai (oreka familiarra, nerabezaroa, dolua kudeatzea, komunikazioa, eta abar).

Gai horiek lantzeko Psikologun kabinetearen laguntza izango dute. Aurreko edizioetan, jardunaldia bereiztuta pasatzen zuten umeek eta nagusiek, baina aurten denek batera bazkalduko dute Aizpe elkartearen eta jolas kooperatiboaren elkarrekin jardungo dute.

Harrera familien garrantzia gizarteratzen ari da Beroa elkarteak. Harrera familien lana gero eta ezagunagoa bada ere, oraindik jende askok ez daki oso ondo zer diren. Arrazoi ez

berdinak tarteko, haien jatorrizko familiekin bizi ezin diren adingabeentzako aukera bat da, familia baten babespean hazi daitezten. Beste familia batekin hartzen du bere gain adingabe horien zaintza. "Garrantzitsuena umea edo gaztea maitatzea da; baina gainera adingabea zaindu, elikatu eta hezteko obligazioa hartzen du bere gain familia horrek aldi baterako, adingabearen jatorrizko familiak zaindu ezin duen denborarako", argitu du elkarteak.

Beroa elkarteak nabarmendu nahi du harrera ez dela nahastu behar adopzioarekin. Azken batean, aldi baterako neurri bat da harrera, haur edo nerabe horien egoera hobetzeko, azken helburua adingabea bere etxera itzultzea baita, jatorrizko familiak bere arazoak konpondu artean. Haurrek, beraz, harrerako familiarekin bizi arren, familia biologikoarekin edo jatorrizkoarekin bisitak izan ohi dituzte Foru Aldundiak ezarritako egunetan.

Gipuzkoan 361 ume eta gazte bizi dira harrera familietan.

Horietatik, 155 senitartekoen harrera familietan (osaba-izebak, aitita-amamak...), 183 lehenago harremanik ez zuten pertsonen familietan eta beste 23 harrera familia profesionaletan. Horiek

guztiak familia eredu estrukturatua eta normalizatua eskaintzen diete haurrei. Egonkortasun fisikoa eta emozionala, babesa eta maitasuna jasotzen dute familiaren aterpean.



Idurre Arakistain

BI UME DITU HARRERAN

*“Pozik gaude,
negarraldi pila bat egin ondoren”*

Idurre Arakistainek eta bere bikotekideak bi haur dituzte etxean, biak harreran. Orain dela hiru urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak harrera familia izateko balorazioa astelehen batean tramitatu eta barixakurako sei urteko ume bat etxean hartzeko eskaini zien. Handik hilabete gutxira lau hilabeteko haur bat hartu zuten harreran, aurrekoaren anaia. Prozesua zaila izan dela aitortu du Idurrek, batez ere ume nagusiaren kasuan. Hala ere, lortutako aurrera pausoekin oso pozik agertu da.

◆ Zuen familian bi ume dituzue harreran.

Anaiak dira biak. Nagusia gurekin sei urterekin etorri zen bizitzera. Bost urtez bizi izan zen bere gurasoekin eta beste urtebete Diputazioaren pisuan. Txikia, berriz, jaio eta gurasoei ez zieten etxera eramaten utzi, hirugarren kasua zen eta (aurretik beste anaia bat ere bazeukaten). Txikia hiru egunekin joan zen pisu batera eta lau hilabete dauzkanetik gurekin dago. Hiru urte egingo ditu abuztuan.

◆ Nolakoa da esperientzia?

Gogorra. Diputazioan beti esaten dizute. Ume hauek bizi dutena ez da normala. Nagusiaren kasuan lehenengo urte eta erdia, pixka bat lasaitu artean, zaila izan da. Berak ikusi duenera arte hemen estabilitate bat baduela, lasaitu arte gogorra izan da. Gertatu izan zaigu haserrealdi bat izan eta umea geldi egotea zortzi-bederatzi orduz, blokeatuta eta hortik irten ezinda. Hori ikustean, galdetzen duzu: “Zer dago hor? Zer dago ez diona uzten umeari aurrera pauso bat ematen?”. Inpotentzia handia sentitzen duzu, ikusten du-

zulako ez zarela iristen ume horren-gana. Denbora aurrera doan heinean, luze joaten da. Momentu askotan esaten duzu: “Ez dakit ume honi aurrera egiten laguntzen”. Zuk nahi duzu ume horrek oinarrikoa izan dezan, normal eta lasai bizitzea, pozik.

◆ Aurrera pausorik igarri duzue?

Ume hauek egiten dituzte oso pauso txikiak, eta azkenean hobekuntzak ikusten hasten zarenean pauso handiak nahi dituzu.

◆ Babestuta ala bakarrik sentitzen zarete?

Umea psikologoarengana joaten da, laguntzak badauzkagu, Diputazioak ere teknikari bat dauka gurekin harremanetan jartzen dena... Alde horretatik oso babestuta sentitzen gara. Momentu batzuetan *pun* egiten duzu eta telefonoz deitzen duzu eta laguntza handia da Diputazioa hor izatea. Baina egunean egunekoa zuk bizi duzu: ume hori zure etxean dago eta ikusten baduzu blokeatuta eta haserre eta ez dela hortik irteten, kristoren inpotentzia da, eta kristoren negarraldiak egin ditugu.

◆ Nola daramazue familia biologikoa bisitatzea?

Gure kasuan, ondo daramagu hasieratik hori horrela delako; hasieratik esan ziguten familia biologikoarekin harremana izan beharko genuela. Badakigu hori hor dagoela. Gaizki eramaten duzu gurasoak huts egiten hasten badira. Zer esango diozu ume horri? Foru Agindu bat dago esaten duena aitarekin eta amarekin zenbatean behin egon behar duten, zenbatean behin aitarekin, zenbatean behin anaiarekin... Ezarrita dago eta hori bete egin behar da. Diputazioko teknikariek esaten dizute normalena litzatekeela etorkizunean bere gurasoekin harreman normal bat izatea.

◆ Pozik zaudete?

Bai. Badaude gauza asko landu behar direnak. Baina nagusiak asko egin du aurrera, eta oso lasai dago. Baditu zailtasunak edo jarrerak, eta momentu horretan pentsatzen dut ez gaudela ezer egiten, baina gero ondo ikusita konturatzten gara zenbat gauza egin ditugun edo egin dituen berak. Pozik gaude. Hori bai, hiru urtetan negarraldi pila bat izan ditugu eta amorrua sentitu dugu.



Roboten zientzia umeei zabaltzeko piezak elkartuz

Robotika dibertigarria jardunaldiak egin zituzten zapatuan Elgoibarren roboten zientzia umeengana gerturatzeko asmoz. Ikasturtean barrena izan diren tailer teknologikoetan egindakoak ikusgai jartzeaz gain, LED argientzako kolore eta mugimenduak egin; robot, sensore eta informatika-programazioak ezagutu; eta Minecraft jolasari buruzko hitzaldia entzuteko aukera izan zituzten. Robotikak etorkizunerako izan dezakeen eragina sekulakoa dela esan dute ikastaroak eskaintzen dituzten Camp Tecnologikokoek, industria arloko adituek, guraseok eta Udalaek. Robotak etorkizuneko gauza ziruditen arren, bertan dauzkagulako umetatik hasita beraiekin aritzeko moduan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Robotek hartu zuten zapatuan Lekueder. Marrazki bizidunetan ikustera ohituta zeuden lehen baina orain jolaserako ez ezik, etxeko lanetan ere nabari da roboten eta automatizazioaren presentzia eta jakina, sektore ekonomiko nagusietan. Industrian robotika erabiltzeko ikasi egin behar dela gauza jakina da, baina umetatik irakasten hasiz gero roboten piezak martxan jartzea erraztu dezake horrek.

Elgoibar eta inguruko enpresetan denbora luzean ari dira maila altuko teknologia duten proiektuekin lanean, eta horretarako prestakuntza handiko pertsonak behar dira. Behar horri erreparatura, herriko neska-mutilekin adin goiztiarrean lanean hastea pentsatu zuten tailerrean harrobia lantzeko.

Teknologia tailerrak jarri dituzte martxan 7 eta 13 urte bitarteko umeentzat ikasturte honetan. 66 neska-mutilek hartu dute parte programazio, robotika, sensore eta muntaia proiektuak garatuz, hori guztia modu dibertigarrian.

Tailerren egitasmoa Udalak abian jarri arren, ideia guraso baten eskariz etorri zen. Onintza Aranbururen umeek robotika ikastaro bat egin zuten udan, Donostian, eta haiei gustatu zitzaenez, ikastaroa Elgoibarrera ekartzeko saiakera egin zuen. Ikastolan eta IMHn ez zuen aukerarik izan, eta plangintza Elena Alonso, Udaleko enplegu teknikariari aurkeztuta aurrera egin zuen. Berehala gela lortu zuten Arreiturre institutuan, hilabeteko ikastaro pilotu bat egin eta gustura ikusita tailerra antolatu zuten.

Ikastaroen ardura Camp Tecnologicokoek izan dute. Hango zuzendari Jesus Angel Bravok ere interesa zuen bere semeak gai honi buruz ikasi zezan, eta horregatik jarri zituen abian horrelako ikastaroak, "semeak ez zituzan gauzak besterik gabe zetozen moduan erabili, baizik eta interesa izan zezan nola funtzionatzen zuten jakiteko eta funtzionarazteko". Estatu Batuetan baziren teknologia-rekin zerikusia zuten udako kanpalekuak, eta Euskal Herrian ere antolatu zituzten tailerrak opor giroan, unibertsitateko begiraleekin, robotak egiteko kитеkin eta bideo-jolasak garatzeko moduekin modu dibertigarrian ikasteko. Lehen aldia oso arrakastatsua izan zen Bilbon, gero beste hiriburuetara zabaldu zuten eta orain hogeitokitan daude. "Ikasketa arloa lantzen dugu, baina gero nahi dugu umeei gauza hauek egiteko piztutako gogoak ikasten jarraitzera bultzatu ditzala". Bravok, esaterako, honekin hasi aurretik erosi zion semeari robot kit bat eta muntatu zuten etxean, "baina aldamenean ez zuen horretan zebilen lagunik ezer partekatzen. Jende gehiago elkarrekin arituta lortzen da norbaiti zerbait ondo atera ezean besteak laguntzea... Hori da tailerren asmoetako bat".

ROBOTAK ERAIKI ETA PROGRAMATU

Elgoibarren ikasturte osoan barrena aritu dira tailerrak egiten. Ez zuten hainbesteko arrakasta espero, baina 66 ume hasi ziren eta azken hiru hilabeteetan 44 mantendu dira. Askoren zalantza izango da zer egiten ote duten ikastaro horietan. "Robota bera eraikitzen dute, hainbat gaitasun garatzen ikasteko: espazioa,

"Robota programatzean mentalki sekuentzia-logika bat garatzen du, eta norbere bizitzarako ere balio dezake"

nola funtzionatzen duten motoreek, sentsoreek... Horrekin batera programatzeko gaitasuna legoke, izan ere, gailu edo robot batek aurrez programatu zaizkion gauzak baino ez ditu egiten. Mentalki sekuentzia-logika bat garatzen du, eta balio dezake baita norbere bizitzarako ere. Norbaitek arazo bat baldin badauka ikusi behar izaten du irtenbidea nola eman, eta kasu honetan hori programa batera egokitu eta robot baten barruan emaitza berehala ikusten da".

Zapatuko saioan, esaterako, LED gailu edo argiak programatzen ikasi zuten. LED bakoitza kontrolatzen: kolorea, denbora... "Asko gustatzen zaien efektu bisualaren bidez programatzen ikasteko modu bat da. Ondoren pentsa dezakete argi horiek oinetakoetan jarri eta zapaltzen denean pizteko programatzea...".

ETORKIZUNERAKO LEHEN PAUSOAK

Hori guztia lantzeko helduentzako diren gailuak umeen mailara jaisten dituzte, "oso txikitatik uler ditzaten eta ikus dezaten benetan hori ikasi eta hortarako prestatu nahi duten", dio Bravok. "Hau ez da oso argientzat edo ingeniari izan nahi dutela garbi dutenentzat soilik. Edozein pertsonak adin horretan hainbat eza-gutza jasoko ditu eta gero bestelako ikasketak egin edo beste esparru batzuetan lan egin arren datozen urteetan tresna elektronikoz, sentsorez... inguratuta egongo da, beraz, nolabaiteko ezagutzak izan beharko ditu".

Onintza Aranbururentzat ere etorkizunerako interesgarria da. "Senarra programatzailea dut eta makina erremintan egiten du lan. Bere esanetan umeek berak egiten duena egiten dute baina neurri txikian. Ume hauek guztiak geroan ez dira robotikan arituko, baina bide bat ireki diegu probatzeko".

Tailer teknologiko hauek, umeak dibertitzeko antolatu badituzte ere, enpresara begira ere egin ditu Udalak. Mirian Montero Sustapen Ekonomiko Teknikariaren esanetan, "sekulako gaitasuna garatu eta programa txukunak egiten dituzte umeek. Robotak muntatu, aurrez ordenagailuan landutako programa sartu eta hark agindutakoa egiten du: eskua altxatu, piezak mugitu... Robot horiek ez dute egiten gero makina-erremintan ikusten



Jesus Angel Bravo, Camp Tecnologicoko zuzendaria, lekuederren 3Dko inpresora batekin.





dena, noski, baina hain umetatik txip hori izanez gero gaitasuna garatzen dute”.

Elgoibarrek industrian duen indarrarekin, krisia dela-eta langabezia datuei erreparatu die Udalak eta ikusi du langabetuen artean kualifikatu gabekoen kopurua dela altuena (%66,6). “Ikusi dugu gai hori landu beharra dagoela. Langabetuak ikasketarik gabekoak izanik pausuak eman behar dira horiek prestatzeko. Orain lanean daudenentzat edo bere garaian ikasi ez zutelako langabezian daudenentzat beste hainbat ikastaro egiten dira. Tailer hauekin, ordea, uste dugu gure txikiekin hau

landuz gero, etorkizunean langabezia datuak murrizteko aukera izan daitekeela. Industria munduan Elgoibarren lan gehien dago, baina langile kualifikatuak eskatzen dituzte, eta txikiei bide horretan lehen pausuak emateko modua izan daiteke”, dio Monterok.

Robot txikiak egiteko piezak ere txikiak. Egunen batean industriara iritsi eta egunotan makina-erremintaren biurtekoan ikus daitezkeen makina erraldoiak izatera heldu daitezkeenak beharbada. Jolasetatik abiatu eta modu dibertigarrian ikasiz, umetxoak egunen batean agian robotika enpresetan arituko dira.

INDUSTRIAREN HITZETAN

ENDIKA GONZALEZ MURUAMENDIARAZ

GORATUKO APLIKAZIO ETA ZERBITZU ZUZENDARIA



“Programazioak pentsamendu logikoa garatzera behartzen gaitu”

Enpresek iritzi ona dute umeentzako robotika tailerrak antolatzeari buruz. “Oso egokia iruditzen zaigu. Haurrek programazioan, elektroniketan eta muntaietan lehen urratsak emateko balio du eta gai horien ezagutza gurea bezalako enpresetan oso garrantzitsua da”, adierazi du Goratuko aplikazio eta zerbitzu zuzendari Endika Gonzalezek.

Ezagutza horren garrantziak eragingo du beraien enpresan ere “datozen urteetan robotez inguratuta biziko gara, ez bakarrik industrian baita etxeko eguneroko zereginetan ere. Beraz, robotika gure sektorean oso nabarmen igoko dela argi dago, bai produkzio baliabideetan eta baita fabrikatzen ditugun produktuetan ere”, gaineratu du.

Datozen urteetan bai, eta zer esanik ez etorkizunean. Beraz, umeak etorkizunerako hobeto prestatuta egoteko ere baliagarri izango dira seguru asko ikastaro hauek. “Baietz esango nuke, programazioak pentsamendu logikoa garatzera behartzen gaitu eta haurtzarora aiposatu da horretarako”.

MIGUEL ANGEL CARRERA

AVSKO (ADDED VALUE SOLUTIONS) FUNDATZAILEA



“Robotikak sormena eta arazoak konpontzeko gogoia piztuko ditu umeetan”

Robotikak industrian gauzei konponbidea emateko balio dutela diote adituek. “Umeei erakutsi behar zaie arazoei konponbidea aurkitzen, ez gauzak mobiltzen bakarrik”, esan du AVSKo fundatzaile Miguel Angel Carrerak. “Erronkak jarri behar dira sentore, mugimendu eta elektronikarekin konpontzeko. Sentore edo elektronika guztiak izan beharrean benetan beharrezko dugunarekin. Horrela umeek ikasi ahal izango dute beraiek jolasteko erabiltzen dituzten gauza asko oinarrian teknologia edo robotika dutela”.

Umeak arazo bati irtenbidea aurkitzeko prestatzen badituzte edozein gauzatarako ondo prestatuta egongo direla uste du. “Sormena eta arazoak konpontzeko gogoia piztuko ditu umeetan. Gure enpresan robotika erabili eta robotak saltzen ditugu. Beraz, umeek horrelako gauzekiko interesa txikitatik azaltzea, hori ezagutzea eta pixkanaka garatzea beraien ikasketetan eta lanetan gure onurarako da. Hala ere, helburuak izan behar du robotikaren erremintak eman eta arazo txikiak aurrean jartzea, konpondu ditzaten”.



NAROA RODRIGUEZ eta CLAUDIA ARRILLAGA ROBOTIKA LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

“Robotak muntatzea gustatzen zaigu, programatzea, ordea, zaila da”

Robotikaren Munduko Olinpiaden saio bat jokatu zen Bilbon maiatzean eta beraien mailan lehen saria eskuratu zuten Naroa Rodriguez (11 urte) eta Claudia Arrillaga (10 urte) elgoibartarrek. Roboten bidez arazoei irtenbideak ematea da lehiaketa honen helburua eta Lego jokoko *Mindstorm* gamako piezak, sentsoreak eta motorrak erabiliz, bi ordu eta erdian eraiki zuten robota irakasleen laguntzaz. Gero, epaileek, baldintza guztiak betetzen zituela gainbegiratu eta probak pasarazi zizkioten robotari. Espainiako finala jokatzen saikatu dira eta Logroñon izango da irailaren 10ean. Bien bitartean robota hobetuko dute.

◆ Zer egiten du zuen robotak?

Jolas moduko bat da eta piezak botatzen ditu. Robotak, guk lurrian jarritako piezen artetik gorriak bota beharko lituzke, baina ez zigun astirik eman egoki eta garaiz amaitzeko, beraz, lurrian jarritako pieza guztiak bota zituen. Zirkuituan jarraitu beharreko marra beltza da, eta piezak gorriak eta urdinak. Beraz, robotari, koloreak antzemateko sentsoreak jarri genizkion, baita mugitzeko gurpilak eta piezak batzeko pala ere. Irakaslearen laguntza izan genuen, eta robot hobeak bazeuden ere, puntu gehien lortzea zen helburua robota sekulakoa ez bazen ere aurrera egiteko.

◆ Nola bururatu zitzazuen horrelako lehiaketa batean parte hartzea?

Robotikako tailerretan parte hartu dugu ikasturtean barrena. Camp Tecnologicoko entrenatzaileak lehiaketaren berri eman eta aurkeztea proposatu zigun. Pozgarria izan da irabaztea.



“Espainiako lehiaketako finalerako robota egokitu egin behar dugu”

◆ Euskal Herrikoa irabazita, Espainiako txapelketara joango zarete, Errioxara, baina horretarako zuen robota hobetu behar duzue, ezta?

Bai, hala da. Munduko Olinpiadako antolatzaileek jartzen dute erronka eta pieza gorriak bota behar dira. Horretarako robota egokituko dugu, pieza gorriak bota eta urdinak bere lekuan uzteko.

◆ Pozik zabilzate ikastaroan?

Bai. Robot bat baino gehiago egin ditugu tailerretan eta gehien gustatzen zaiguna robota bera muntatzea da. Gero, ordea, guk programatu behar izaten dugu eta hori oso zaila da, mugimendu batzuetan nahastu egiten baita eta guk agindutakoa zuzen betetzea lortu arte proba asko egin behar ditugu.

◆ Etorkizunerako balioko dizue tailer hauetan ikasitakoak?

Bai. Oraindik ez dugu pentsatu zer egingo dugun helduak garenean, baina handitan robotekin lan egin nahi izanez gero, ikasitakoa baliagarri izango dela uste dugu, inarrizkoa ikasia edukiko dugulako.



Herriko idazleen bizipenak mahai inguruan

Donostia 2016ren baita irakurketa sustatzeko eta literaturaren inguruko eragileak elkartzeko hainbat egitasmo egin dituzte, horietako bat da (E)zinezko elkarrizketak. Pitxintxun herriko lau idazlerekin egin zuten elkarrizketak berezia: Uxue Alberdi, Danele Sarriguarte eta Jasone Osoro, Unai Villenaren galderei erantzunez. Dendara ia 50 lagun elkartu ziren.

Idazle noiztik diren, idazle izatea bera zer den, bizitzeko idaztea beharrezko ote duten... galdetu zien moderatzaileak. Besteak beste, Jasone Osorok esan zuen gaztetan konturatu zela emozio eta sentsazioak paperean jartzeak bere burua eta errealitatea hobeto onartzen laguntzen ziola, eta horiek kanporatzea behar duela bestela barrua zulatzen diotelako. Uxue Alberdik ere esan zuen berak bizitzeko espresatzea beharrezko duela eta Danele Sarriguartek bere buruarekin baketzeko bidetzat jo zuen idaztea.

Literaturak herrian elkartuta

Elgoibar eta literaturaren arteko lotura ere izan zuten hizpide, azken aldian herriak idazle asko eman dituelako. Horren harira, Uxue Alberdik esan zuen Elgoibartik joandakoan konturatu zela herrian bazeudela beste toki batzuetan ez bezalako baldintzak literaturara gertutzeko: bertso eta idazlan lehiaketak, laiotz aldizkaria, Urruzuno literatur taldea... Elgoibarko Izarrak egindako lana eta Institutuan jasotakoa ere aipatu zituen. Beste literatur zale batzuekin elkartu eta literaturaz hitz egiteaz gain, nor bere lanak partekatzea motibazio ere bazela esan zuen.

Mahaiaren bueltan hiru emakume egonik, emakumezkoen eta literaturaren arteko loturaz ere aritu ziren. Bizi garen gizartearen emakumeak esparru publikora ateratzea zailagoa dela esan zuen Danele Sarriguartek, eta hirurek bat egin zuten esatean demostratu eta justifikatu egin behar izaten dutela hor dardela idazle direlako ez emakume direlako bakarrik.

Bukaeran, jakinarazi zuten Danelek eta Uxuek eleberri banarekin ari direla lanean eta Jasonek, gazteen literaturari helduko diola berriz.

'Euskararen isobarak' liburuari buruzko hitzaldia egingo du eguaztenean Pako Aristik

Pako Aristik bere saiakera liburua, *Euskararen Isobarak*, aurkeztu eta gaiaren inguruko hitzaldia eskainiko du ekainaren 8an, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Euskararen inguruko diskurtsoa kutsatzen duten gezurrak detektatzen saiatu da Pako Aristi liburu honetan: euskara politizatu dagoela, ez dela modernoa, subentzionatua dagoela, erakargarritasuna falta zaiola... Horretarako, Nafarroako Erresumaren garaitik gaur arte euskarak jasan duen gainbehera deskribatu du. Erakunde politikoaren eta hizkuntzen iraupenaren arteko harremana ere sakon aztertu du liburuan. Estilo bizian idatzia, istorio, pasadizo, aipu, datu eta gogoeta zorrotzak erabiliz dago liburua, baina, ez da ondorio bat, gogoeta askoren abiapuntua baizik, eta hain zuzen ere, hori da idazlearen asmoa: gure herriaren eta gure hizkuntzaren aurkako ideiak barnetatuta dauzkagunez horiek detektatzea eta desaktibatzea.

Eguazteneko hitzaldian, beraz, liburua aurkeztu ez ezik, euskaldunoi geure hizkuntza-errealitatearen kontzientzia pizteko ahalegina egingo du idazleak.




Jairo Berbelek 'Siempre' eleberria aurkeztu du Ekuadorren



Siempre. *La leyenda de la pecosa de ojos verdes*, bere lehen eleberria aurkeztu du Quiton (Ekuador), 300 lagunen aurrean, Jairo Berbel kazetari elgoibartarrak. Yulexi Carolina Chevezen bitzitza eta ametsak kontatzen ditu bertan. Ekuadorko gazte honekin maitasun harreman labur bat izan zuen Jairo Berbelek, baina 18 urte zituela hil zen neska minbiziak jota. Minbiziaren Kontrako Gazteen Fundazioko kidea izanik, minbizidun gaixoen eta gutxietsitako pertsonen alde egin zuen lan. El Conejo argitaletxearekin kaleratu du liburua eta jadanik baimena du Euskal Herrian inprimatzeko, beraz, egileak uste du aste gutxitan Elgoibarren irakurri ahal izango dela. Bestalde, Planeta argitaletxeak ere interesa azaldu du. Berbelen nahia da euskal argitaletxeren batekin hitz egitea eta agian euskarara itzultzea.

'Kataiak' ikus-entzunezkoa domeka arratsaldean Herriko Antzokian



Donostia 2016k eta Morkaiko mendi taldeak elkarlanean antolatu dute 2016 Bidea egitasmoa 11. etapa. Elgeta eta Elgoibar lotuko ditu mendiz mendi ekainaren 5ean. Mendizaletasunak kulturzaletasunarekin bat egin du proiektuan eta 16:30ean, Herriko Antzokian, Aitor Nova musikari elgoibartarrak sortutako *Kataiak* ikus-entzunezkoa eskainiko dute. Elgoibarko makina-erremintaren mendeurreneko ospakizunetan eskaini zuten estreinakoz. Musika, museoko makinaren hotsak eta enpre-setako irudiak zein soinuak batzen ditu, makina-erremintaren iragana, oraina eta etorkizuna irudikatuz.

Iraileko Txokoetarako izen-ematea zabalik

Udako Txokoen luzapena eskainiko du irailan Atxutxiamaikak aisialdi taldeak. Irailaren 1, 2, 5 eta 6an izango dira, 09:00etatik 13:00etara bitartean. Bi egunetako zerbitzuaren truke 24 euro ordaindu beharko dira (Elgoibarko Izarrako bazkideek, 22 euro); lau egunen truke, berriz, 48 euro (bazkideek, 43 euro). Parte hartu ahal izateko, www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eman behar da izena, ekainaren 1etik 10era bitartean. Txokoak egin ahal izateko gutxienez hamar lagunek eman beharko dute izena. Goiz-Txoko zerbitzua eskaini ala ez eskaeraren arabera erabakiko dute.

Ate irekien jardunaldia zapatuan Elgoibarko meskita berrian

Tawasol, Elgoibarko komunitate musulmanak ate irekien jardunaldia antolatu du meskita berrian. Pedro Muguruza etorbideko 85. zenbakian, zortzigarren pabiloian egin dute meskita. Herritarrek barrutik ezagutu dezaten zabalduko dituzte ateak dituzte ateak zapatuan, ekainaren 4an, 9:00etatik 21:00etara bitartean. Otoitz gelak eta eskolak emateko gelak erakutsiko dituzte besteak beste. Gerturatzen direnentzat, gainera pintxoak, gozoak, tea, kafea... jarriko dituzte ongi-etorria egiteko. Gainera, ekainaren 6an hasiko dute musulmanek aurtengo Ramadama –beraien fede eta sinesmenagatik egunsentitik ilunabarrera arte baraualdia egiten duten hilabetea– uztailearen 5era arte luzatuko dena.



Ohorezko infantil mailako taldeak

Euskadiko Futbol Txapelketa jokatu du Lezaman asteburuan

CD Elgoibar kirol taldeko ohorezko infantil mailako taldeak Euskadiko Txapelketa jokatzeko sailkatzea lortu du. Gipuzkoako txapelketako 3. eta 4. postuak erabakitzeko partida jokatu zuten Donostiako Kostkas taldearen aurka, Zumaian, joan den asteburuan. Arauzko denbora banakoarekin amaitu ondoren, penaltietan nagusitu ziren elgoibartarrak. Garaipen horri esker eskuratu dute Euskadiko Txapelketa jokatzeko txartela. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko bederatzi talde onenek hartuko dute parte Lezaman jokatu den txapelketan. Infantil Txiki mailako taldeak, berriz, Kopako finala jokatu zuten Deban, baina 1-0 galdu zuten Oiartzun taldearen aurka.

Paella jana

Futbol denboraldia amaitzeko paella jana egin zuten CD Elgoibarrek, eta 300 bat lagun batu ziren Maalako parkean. Bazkalostean denboraldiko talde eta jokalarari onenen sariak banatu zituzten.



Eskubaloi Eguna antolatu du Sanlok ekainaren 11rako



Sanlok festa giroan esango dio agur denboraldiari, eta SanloFesta eta Eskubaloi Eguna antolatu ditu ekainaren 11rako. Eskubaloi Egunaren laugarren edizioa Kalegoen plazan egingo dute aurten ere. Benjamin eta alebin mailako neska-mutilentzako jardunaldia prestatu dute. Jokalari gaztetxoek 10:30etik 13:30era bitartean jokatu dituzte partidak plazan. Partidetan parte hartu ahal izateko taldeka eman behar da izena. Horretarako, talde bakoitzak Sanlok sarean jarri duten galdetegia bete behar du. Zazpi eta hamar ume bitarteko talde mixtoak arituko dira plazan. Ekainaren 7a izango da izena emateko azken eguna.

Kirol argazkien lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udalak eta Ongarri argazkilari elkarteak Kirol Argazki lehiaketa antolatu dute, hamargarren urtez. Kiroleko arlo guztietako argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara, koloretan nahiz zuri-beltzean. Argazkilari profesionalak zein zaleek hartu dezakete parte, eta bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Argazkiak Olaizaga kirolegian aurkeztu beharko dira, uztailaren 15erako. Sariak abuztuaren 22an banatuko dituzte, eta saridunek bertan egon beharko dute.

180 igerilarik hartu zuten parte Elgoibarko Igeriketa Egunean



Elgoibarko Igeriketa Eguna egin zuten Olaizaga kiroldegian maiatzaren 27an. Guztira 180 umek hartu zuten parte, 6 eta 14 urte artekoak. Txikienek hainbat jolasetan parte hartu eta gozatzeko aukera izan zuten, eta koskortuagoak igeriketa proba desberdinetan lehiatu ziren.

Espainiako Automodelismo Txapelketako proba jokatuko dute Mendaron



Mendaroko Ospas-Gaineko zirkuituan, futbol zelaia zegoen lekuan, jokatu da Espainiako Automodelismo Txapelketako hirugarren proba, B mailakoa, asteburu honetan. 1/8 modalitateko auto gidatuak lehiatuko dira zapatuan eta domekan, 08:00etatik aurrera. Hiru kilo eta erdiko autoak dira eta gasolina bereziarekin funtzionatzen dute. 50 bat lagunek hartuko dute parte Abar Eztanda elkarteak antolatutako proban. Euskal herritarrek izango dira gehienak, ia hogeitai, baina Errioxa, Gaztela eta Leon, Madril, Valentzia eta Kanarietatik etorritako parte hartzaileak ere izango dira.

Nesken binakako raketa txapelketa Mendaron

Mendaroko Raketa Zaleak elkarteak antolatuta, Mendaroko Binakako Nesken Raketa Txapelketa egingo dute, bosgarren urtez, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Ekainaren 20ra arte eman daiteke izena Mendaroko udaletxean edo 629 932 458 telefonora deituta.

Emaitzak

FUTBOLA

Elgoibar 1 – Kostkas 1 (Oho. inf.)

Elgoibar 0 – Oiartzun 1 (Inf. Txiki. Kopako finala)

ESKUBALOIA

Gabaz 28 – Donibane 29 (Senior giz. igoera)

Haritza 29 – Gabaz 22 (Sen. giz. igoera fas.)

Bera Bera 31 – Tecnifuelle 24

(Jub. nes. Gipuzkoako Kopa)

Pneumax 29 – Ereintza 30

(Kad. nes. Gipuzkoako Kopa)

Deca 26 – Zarautz 30 (Kad. mut. Gip. Kopa)

Elgoibarko hamabi talde Futbol 7 txapelketan

Joan den asteburuan hasi zen Bailarako Futbol 7 txapelketa. Aurten hamazortzi taldek eman dute izena, eta horietatik hamar Elgoibar-koak dira. Partidak Minxetan eta Eibarko Unben jokatuko dituzte.

Patinaje ikastaroa ekainean

Maiatzean antolatutako familientzako patinaje ikastaroak izan duen harrera ona ikusita, Udal Kirol Patronatuak ekainean ere ikastaro honi jarraipena emango dio. Olaizaga kiroldegian edo Mintxetako harreran eman daiteke izena. Lau saio izango dira: ekainaren 3an, 10ean, 17an eta 24ean. Ostiralero, 17:30etatik 19:00etara, Ikastolako frontoian eta Herri Eskolako kantxa estalian. Banaka edo familian eman daiteke izena. Bazkideek 32 euro ordaindu beharko dute banakoa eta 39 euro familiakoa (Bazkide ez direnek: 39 eta 49 euro).

LANA.....
Eskaerak

Garbiketan edo obretan peoi lan egiteko prest. Esperientzia handia. 631 162 014

Garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 631 212 497

Garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 631 132 553

Adinekoen zaintzan lan egiteko prest. Interna. 612 266 877

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Esperientziarekin. 603 651 808

Umeak zaintzeko prest, Elgoibarren edo inguruko herrietan. 653 569 293

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 625 857 164

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest, orduka. Esperientziarekin. 671 989 434

Elgoibartarra etxeak garbitzeko prest. Prezio oso onean. 649 782 967

Gaszte euskalduna umeak zaintzeko edota LHko eskola partikularrak emateko eskaintzen da. 688 652 457

Pertsona euskalduna portalak edo elkar-teak garbitzeko prest. 617 571 210

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. 616 281 931

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Orduka edo interna. 631 417 922

Furgonetarekin banatzaile, sukaldari laguntzaile edo tabernari lanetan aritzeko prest. 688 715 904

Elgoibartarra adinekoak zaindu, paseatu, janaria prestatu eta etxeko lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentzia onak. 660 511 781 edo 943 742 330

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat, baita paperak behar bezala ere. 616 328 060

20 urteko ikasle euskaldunak umeak zainduko nituzke uztailean. 608 989 294

Garbiketa lanetan edo umeak eta adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Orduka edo interna. 678 112 785

Adinekoak edo haurrak zainduko nituzke, edo etxeak garbitzen arituko nintzateke. 631 418 130

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 602 193 095 (Miriam)

Adinekoak edo umeak zaintzen zein garbiketan egingo nuke lan. Interna. 612 216 458 (Selena)

Garbiketa lanak eta etxeko lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo orduka. 631 133 431 / 632 825 580

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka zein interna. Erreferentziak dauzkat. 632 871 550

Eskaintzak

Ile apaintzailea behar da San Lazaro Egoitzarako. 943 74 0296 (Monika edo Itziar).

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. Bidalitako Kurrikuluma argazkiarekin helbide honetara: sukaldaribat@gmail.com

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 767 696

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Logela bat edo bikoa. 602 490 595

LOKALAK.....**Salgai**

Urazandiko harategia salgai edo alokairuan dut, jubilazioa dela-eta. 943 740 884

**GARAJEAK.....****Alokairua**

Bi autorentzako garaje marraduna alokagai Pista Beltzean. 75 €ko alokairua.

Salgai

Debako hondartzan garaje itxia salgai. Lehenengo solairuan. 655 712 021

KINTADAK.....

1949an jaiotako bazkaria ekainaren 11n. 12:30: Argazkia San Bartolome elizako arkupeetan. Jarraian, luncha Ibai Ondo erretegian. 14:30: bazkaria Sigma Jatetxean. Izena eman ekainaren 8a baino lehen. 50 euro sartu La Caixan: ES2100 58 4168 76 2100312515

BESTELAKOAK.....

Eraztuna galdu dut. "Iker 2011-05-20" jartzen du barruan. Balio sentimental handia dauka. 677 110 531



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Nire komunitatean lehen solairuko etxebizitzek terrazak daukate eta terraza horiek hezetasuna sortzen ari dira beheko solairuko merkataritza lokaletan. Terrazak jardenera eta loreontziekin apainduta daude eta baliteke horiek eragitea hezetasuna, nahiz eta beheko zoladuraren inpermeabilizazioak ere eragina izan dezakeen.

Nork ordaindu behar ditu terrazatik datozen hezetasunak konpontzeko gastuak?

Adituen azterketa beharrezkoa da hezetasuna nondik datorren zehazteko. Hala ere, jardinerak eta loreontziek, beraien pisuaren eraginez, asfaltozko geruza zulatu ez badute behintzat, arazoa estankotasuna da. Horrek eraikinaren gain jartzen du bizigarritasun baldintza. Beraz, hezetasunaren iturburua inpermeabilizazioaren zoladura azpian badago, beharrezkoa izango da obra eta jabeen komunitateak ordaindu beharko du.

Legeak dio derrigorrezkoak direla eraikuntza, zerbitzu eta instalazio komunak zaintzeko ezinbesteko mantentze-lanak, baita segurtasunerako, bizigarritasunerako, irisgarritasunerako eta apaingarri modura oinarritako baldintzei dagozkienak ere. Horrez gain, kontserbazioaren legearen arabera Administrazioak ezarritakoak.

AHOLKUA: Konponketa gastuak ezin zaizkie inputatu lehen solairuko jabeei, baldin eta ez bada frogatzen hezetasuna beraien erruz sortutakoa dela.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENe**ko** bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Endi-kari**, etxeko txikiari lehenengo urtebetetzean, etxekoen, batez ere Laia, Irati eta Aimirren partez.



Gaur bai egun handia! Zorionak, **Martxel**. Bost urte! Ondo pasa, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Ar-hane**, familiako guztien partez, igandean 8 urte beteko dituzulako.



Zorionak **Mikel**, zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Rubia**, atzoko partez! Etxekoak.



Zorionak, **June**, gure etxeko printzesa, gaur bost urte bete dituzulako. Muxu asko amama eta familiaren partez.



Zorionak, **Maia-len**, 7 urte egin dituzulako. Familiaren eta batez ere Mikelen partez.



Zorionak, etxeko **printzesa-ri**, igandean 5 urte beteko dituzulako. Ondo pasatu. Muxu handi bat danon partez!



Zorionak, **eder hori!** Domekan ospatzea eta ondo pasatzea opa dizugu. Musu handi bat familia guztia-
ren partez.



Zorionak, **Haizea** eta **Maddi**. Bihar 6 urte beteko dituzuelako. Bi patxo handi etxeko guztien partez.



Zorionak **71ko kintada**ra etorri zineten guztioi. Asko izan ginen bertara hurbildu ginenak eta giro paregabea izan genuen. Ea noiz egiten dugun hurrengoal!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

AZALEA Edergintza
M^a Carmen Bereziartua
Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 740 310
Gorputz eta aurpegi estetika

Abian dagoen negozioa alokatzen da,
erretiroa dela eta.

A. Garate
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE LENTILLA
PAKAREKIN
Nezeserra
+
Malko artifiziala opari

Kontsultatu baldintzak dendan/ Balioagarria stocka agortu arte.

3 BARIXAKUA

18:00-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroan.

18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. *Ama-lurra*. Mendaroko Ikastolako jolastokian.

18:30 Argazki erakusketa: *Disparando A 33RPM*. Unai Endemaño. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 20:30era. Ekainaren 10era arte. Antolatzailea: Sinuöse. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Jaialdia: I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako ikasleak. Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute. Kalegoen plazan (euria eginez gero, Lekuederreko karpan).

23:00 Hellgoibarko IV. Metal gaua: Legen Beltza eta In Thousand Lakes. Antolatzailea: Sinuöse. Maalako parkean.

4 ZAPATUA

9:00-21:00 Comunidad Musulmana Tawasol meskita berriaren irekiera. Ate irekiak herritarrentzat. Pedro Muguruza etorbidea 85-8.pabiloia.

10:30 Ikastolaren eguna. Txaranga. Kalegoen plazatik Ikastolara. Ondoren, egun osoz: jolasak, tailerra, altxorraren bila, kirolak, tonbola, Niala Magoa, bazkaria, sari banaketa, zozketa, mus txapelketa eta musika. Ikastolan.

5 DOMEKA

08:00 Espainiako automodelismo txapelketa. Mendaroko Ospas-Gaineko zirkuituan.

08:00 Bidea proiektua. Elgeta-Elgoibar (Industria-lurralde). Morkaiko Mendi Elkartea eta Donostia 2016. Irteera Txankakuatik.

9:45-17:00 XI. Elkarbizitza jardunaldia. Beroa, Gipuzkoako Harrera Familien Elkar-teak antolatuta Udalaren laguntzarekin. Mendaroko udaletxeko sarreran. Tailerrak eta dinamikak psikologunekin; bazkaria; eta Jolas kooperatiboak.

16:30-17:00 Kontzertua: *Kataiak*. Bidea proiektua. Elgeta - Elgoibar (Industria-lurralde). Morkaiko Mendi Elkartea Donostia 2016rekin elkarlanean.

7 MARTITZENA

18:00 Hitzaldia: *Bularreko minbiziaren prebentzioa*. Katxalin, bularreko eta ginekologiako minbizidun emakumeen elkarteak. Hizlaria: Maria Jesus Mitxelena, sendagilea. Mendaroko Udalbatzarren aretoan.

8 EGUAZTENA

17:00-20:00 Errigorako eskarien banaketa. Merkatu plazan.

19:00 Hitzaldia: *Euskararen isobarak*. Pako Aristi. Elgoibarko Izarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

19:00 Ameikutz musika eskolako kurtso bukaerako kontzertua. Kitarra ikasleak eta konbo elkartrukea. Mendaroko San Agustin antzokian.

10 BARIXAKUA

8:30-9:30 Oin Alai kalejira berezia. Kalegoen plazatik Elgoibar Ikastolara eta Herri Eskolara.

17:30 Kiribil. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Maalako parkean.

19:00 Kontzertua: Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako talde finkoak. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: *Piedras*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 Dantza ikuskizuna: *Biraka Power! Gure Indarra!* Doan. Mendaroko Goñati pilotalekuan.

22:00 Kontzertua: Amorante (Iban Urizar). Iltziarko Burugorri etxean.

INTERESAK HAIN BAXU EGONDA, ZEIN DIRA AURREZKIAK JARTZEKO GAUR EGUNGO AUKERAK?

Produktuen katalogoa apenas aldatu da. Bakoi-tzak bere profilaren araberrako eta jasan nahi duen arrisku mailaren araberrako erabakiak hartu beharko ditu. Lau produktu bereiztuko ditugu:

1. Interes finkoko depositoak: oso maila baxuan daude eta interes tasak hutseruntz joango dira datozen hilabeteetan, beraz, erakargarritasuna erabat galtzen ari den produktua da.

2. Inbertsio fondoak: seguruenik aukera interesgarriena. Fiskalitate aldetik aukera onena da eta bakoitzaren profilerako egoitzen diren aukera desberdinak daude.

3. Burtsa: arrisku maila altua jasateko prest dauden profilentzat baka-rrik egokia.

4. Inbertsio aseguruak: epe luzeago baten truke, interes finkoko depositoak baino interes zertxobait altuagoa eman dezaketen produktuak dira.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoko honetara: galderak@bankoa.es

 Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G
U
A
R
D
I
A
K**09:00 - 22:00**

3 Barixakua BARRENETXEA
 4 Zapatua IBAÑEZ
 ETXEBERRIA (9:00-14:00)
 5 Domeka IBAÑEZ
 6 Astelehena GARITAONANDIA
 7 Martitzena ETXEBER.BARRENET.
 8 Eguaztena FERNANDEZ
 9 Eguena YUDEGO
 10 Barixakua ORUESAGASTI

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384


IV. URTEURRENA

Joseba Bilbao Garate

2012ko ekainaren 4an hil zen, 48 urte zituela

***Bi mila eta hamaseiko ekainaren laua
 urtero bezala daukagu gainean
 gorputza minduta, begiak malkotan
 Andutz mendia gure aurrean
 gugandik joan zinen lagun maitea
 zure oroitzapena dago gure artean
 egunak joan, urteak pasa
 baina Joseba beti gure bihotzean.***

Koadrilakoak



IV. URTEURRENA

Joseba Bilbao Garate

2012ko ekainaren 4an hil zen, 48 urte zituela

***Alaitasunaren iturritik
 edan genuen elkarrekin
 oroimenean izango zara
 zu beti gurekin.***

Etxekoak





Jose Luis Azpillaga

Argazkilariak bere artean: Joño, adar ikusgarri horiei etekina atera behar diet nik. Hain dute punta zorrotza eta zuta, aztoragarriak dira: *zezenaren adarrak, urrutian ederrak!* Atzeko etxeek eta elizak bertikaltasuna emango diote argazkiari; ikusleari bista zerurantz altxarazi eta urdin horrek bakea eta oreka emango dizkio eszenari. Kontuz, kontraste handia dago, eta dena enfokatu nahi nuke, lehen plano eta atzekoa. Horrela!

Aurreko behiak bere kolkorako: morroi hau ere ari dun ba nire adarrei begira! Hurbildu hadi pixka bat gehiago eta borrokatuko haut hi ere! Nire ezkerreko adarraren punta apurtuari erreparatu eta konturatuko haiz aurretik ere borroka egindakoa *naizela! Esaerak dioen moduan: Ezagützen düzu xoria lümati, behia eta idia adarreti eta gizona hitzeti.*

Baserritarren arteko elkarrizketa: –Ez zekiat ba! Okelaren eta esnearen prezioak oso behera etorri dituk, eta, martxa honetan, ez diat pentsutarako ere egingo. Eroslerik azalduko ahal duk gaurkoan! –Ba, entzun diat Kortaberriko Inixio behi bat erosi nahian dabilela! –Hemen aukera handia zegok, ordea, eta badakik: *auzoaren behiak errapea handiago!*

Amonak bilobari kantuan: *Bat, Patxi parrat; bi, Patxi ipurdi; hiru, kolkoa bete diru; lau, xagu xarrak jango al hau; bost, kakatan ploxt; sei, etxea bete behi; zazpi, etxea bete zapi; zortzi, etxea bete zorri; bederatz: etxea bete hegazti; hamar, katu zaharra su bazterrean marmar...*

Kalekumeak bere kabutan: behiek atzera naramate historian eta oroimenean. Historian, kobazuloetako gizakiarenganaino, bisontearren eta betizuen irudiak margotzen zituen haranganaino. Oroimenean, haurtzaroko baserriko behiengana. Bestelako erritmo bat dakarkidate burura: gurdari lotutako behien ibilera patxadatsu eta lasaigarriarena. *Poliki ta astiro, beti eztiro...*



Iñigo Lamelas

“Argazkilariak bere artean: Joño, adar ikusgarri horiei etekina atera behar diet nik”

ONWA TELEBISTA

LED 49" - 49 FH



COMBI FAGOR FFK6735BX



ROWENTA XURGAGAILUA

R03753EA



Aste berezia!

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

BARREN astekarian banatzaileak behar dira



BALDINTZAK:
16 urtetik gorakoa izatea.
Euskaraz jakitea.

Interesatuak **943 741 112** telefonora deitu
edo barren@elgoibarkoizarra.eus
helbidera idatzi.



BAREN

barrena 11, EIBAR

garajesGarcia.com

KUPOI HONEKIN

8 PUNTUKO

**SEGURTASUN
BERRIKUSPENA
DOAN**



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Telefonoa: **943 820 697**
Telefonoa: **943 202 214**
Telefonoa: **943 127 271**

11.500€



CITROEN DS3 1.6 VTI Special Edition 120
Motorea: 1.6 VTI Gasolina
Kilometroak: 115.000
Egoera: Erabilia

26.000€



HONDA CRV ELEGANCE 2.2 i-CTDI Diesel
Motorea: 2.2 i-CTDI Diesel
Kilometroak: 100.000
Egoera: Erabilia

18.000€



HONDA ACCORD TOURER 2.2 i16c Executive Diesel
Motorea: 2.2 i16c Diesel
Kilometroak: 115.000
Egoera: Erabilia

5.000€



KIA CARNIVAL 2.9 CRDI LX
Motorea: 2.9 CRDI Diesel
Kilometroak: 150.000
Egoera: Erabilia

12.000€



SUZUKI JIMNY 1.5 4x4 J1X
Motorea: 1.5 i16 Diesel
Kilometroak: 60.000
Egoera: Erabilia

1.500€



VOLKSWAGEN Polo 1.9D Base
Motorea: 1.9 D Diesel
Kilometroak: 271.000
Egoera: Erabilia

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ARROZTEGIAK

 **iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

 **MAR**
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimare@hotmail.com



 **BIENA S.L.**
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Aroztegia  Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

 **Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P

943 740 547



ELEKTRIZITATEA

 **iparelek s.l.**
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

 **ELECTRICIDAD**
AZPELETA

San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

 **CARRANZA,**
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

 **electricidad**
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behea
Tel.: 943 202 208 Herriko Enparantza 5
Faxa: 943 205 045 Tel.: 943 033 235
20650 EIBAR 20850 MENDARA

 **egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

 **I.E. ARANDIA**

ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behea - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.

 **IGELTSERITZA**
CAMILO
ALVAREZ

Jardiñeta, 25 behea
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

 **SANTANA**
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

 **PAGOERROTA**
ITURGINTZA
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

 **ONGI** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

 **FONTANERIA**
Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, behe B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

 **TELLABIDE**
ITURGINTZA



Azpilgoeta 7 behea - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

 **ZUBIZARRETA**
instalazioak

Ubitarte plaza, 5 behea
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



 **PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK

 **LODOSO**
LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

 **BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida